

---

# Euskara eta biziaren mintzoa

J. A. Irigaray

Jose M<sup>a</sup> Sanchez Carrión "Txepetx"-en "Un futuro para nuestro pasado" lana Euskarak bere mendetako kinka larria gainditu ahal izateko ezinbestean behar dituen ideia eta jomugak aztertzen eta eskeintzen dituen da. Betidaniko biziaren mintzo eraberritu baten astapen eta oinarriak azaltzen eta finkatzen dituen da. Lan mardula, ederra, Txepetxek egin duena. Harek berea egin du; teoritik praktikazko mailara doan bidea, berriz, herriak egin behar du. Bainan, egiazko nahikaririk ba ote?

Gero eta nabarmenago diren zentzuzko estratejiarik eza eta ahulezia ez dira oraikoak, ez eta erakunde politikoaren gaitasunik eza eta errehabilitazio-nea ere. Kimu berriak, indar berritzaileak, beraz, derrior sortu beharko dira; edo-ta galtzeke beti izan direnak beste gisa batera egokitu beharko, beste dinamikan mamiturik.

Honek ez du esan nahi orai arte egin direnak leihotik behera jaurtiki behar direnik, edo-ta sistimak uzten eta eskeintzen dituen zirrikito eta aukerak baliatu behar ez direnik. Bai, ordea, dinamika beste zutabeetan oinarritu behar dela, beste jokabidez mamitu, beste helburuz eragin.

Eta helburuak -politikagintzan- Euskalerriak bere nazione maila eta duintasuna lortzea izan behar luke. Izkuntz arloan Euskararen normalizazioa, AB maila edo nazione maila osoa; hots, Euskara eta euskaldunen garapen osoa lortzea, Euskararen bitartez gu osa gaitetzen eta gure bitartez hura. Hori baita egiazko normalizazioa eta hori baizik ez bait daiteke izan euskaldunen helburua, nor baldin bagara. Gainerakoa ahuntzaren gauerdiko ametsa da edo, propioago, adar jotze bat eta eskizofrenia utsa.

Ez dakidana da bestek zer erizten dioten; pairatzen den egoera ezinezkotzat daukaten ala ez. Nik, egia esan, ez dut uste ezinezkotzat bizi denik; konformismo eta integrazioa oso sakonak dira eta.

Dena den, herri bezala dagozkigun helburuak bete ahal izateko garbi dago beste estratejia, beste dinamika bat behar dela. Txepetxen lanak izkuntzari dagozkiona -eta ez hari bakarrik mugatua- mamitzen laguntzen du.

Bainan kasu, inork ez dezala pentsa hori mirari batez lor daitekeenik, ajeak egunetik biharamonera senda daitezkeenik; edo-ta gu -aurkezten ari garen liburua plazaratze utsarekin- hortan gaudenik. Ez. Guk -nik behintzat- euskara oso kinka larrian dakusagu, herriaren arabera. Gu egiazko "indioak" bilakatzen ari gara, hemengo askoren laguntzarekin. Auzia, beraz, arras zaila da. Bainan, orobat dugu pentsatzen -nik behintzat- ez dela ezinezkoa, gure esku legokeela; baita egiazko aurrerabidea ere ez dela orai arteinoko bideetatik etorriko, ez daitekeela ustasun, errekupezio eta duintasunik ezaren munduan mamitu; hortik ondamendia eta eskizofrenia baizik ez datozela.

---

*Lan mardula, ederra, Txepetxek egin duena. Harek berea egin du; teorikotik praktikazko mailara doan bidea, berriz, herriak egin behar du. Baina, egiazko nahikaririk ba ote?*

Bide berriak, dinamika berria, euskal helburuz eta jomugaz mamiturikoak, apailatu eta urratu beharko dira, biziko bagara. Normalizazioaren lehen zutabe eta zergatikoa horixe baizik ez baita. Txepetxek dioen bezala: "Euskaldunentzat -beste edozein herrita-

rrentzat bezala- izkuntza arloan osatzea eta Euskaraz osatzea bat bera dira". Hori da helburu eta ardatz nagusia eta hortaz egiazki konzientzia artzeak ematen dio abiadari indar eta zentzua. Horrela bakarrik as daiteke obetzen edo optimizatzen euskararen egoera, bakar, gizarte eta lurralde mailetan. Eta hortan "espacio simbólico" delakoa, iztunen ezurmamia den gune hori -AB/BA iztunek osatua- garrantzi haundikoa da; talde hori izkuntzaren garapen osoa duena da eta, gisa berean, izkuntzari berea ematen diona. Bera da euskal kulturaren sortzaile eta eragile nagusia eta berau eratuz eta zabalduz, izkuntz taldeen arteko artuemanak uztartuz eta trabatuz, indarrak propioki bideratuz, mami daiteke zinez euskararen normalizazioa: euskararekiko ezagutza, erabilpen eta motibapena obetzea eta "haren goien gradora igatea", Detxeparek amesten zuen bezala.

Plangintza batean, besteak beste, prozesoren aballa garrantzizkoa baldin bada, areago da haren norabidea; aballak desberdinak izanagatik ere -iztunen egoerak desberdinak baitira-, auzia ibilbideak oro helburu berari buruz abiaraztean bait datza. Konzientzia eta abiada horien arabera gizarte egoera da aldatzen eta izkuntzaren beharrezkotasuna berez obratzen (eta ez nahas hori, faborez, leihatillakoa, agirizkoa, azalezkoa eta sasibeharrezkoa den horrekin). Hori gertatzen da, funtsean, "espacio simbólico" gunea osatzen duen taldearentzat hala denean: egiazki beharrezkoa; eta horrek eskatzen ditu eta dakartza -ezinbestean- izkuntz/kultur eremu eta arloak zabaltzea eta aberastea.

Hori ezinago garrantzizkoa da. Aste-kotz eta bat, aldarrikatzen ari garen mintzo honek berak euskaldunen jomuga eta jokabideak zabal, sakon eta aberas ditzake; "discurso de la irrealidad-falsa percepción" delakoaren aurka "discurso de la responsabilidad" deitua

proposatuz eta eraginez. Eta erantzun-kizunaren mintzo hori bat heldu da mundu mailako biziaren aldeko mintzoarekin; bat dator eta bera da.

Zilegi bekit hortaz beste nonbait azaldu ditudanak hunat ekartzea:

“Euskararen alde gaudenak izkuntza guztien alde gaude, elkar errespetuzko orekaren alde, menperakuntza guztien aurka; baten aurka egiten dena, azken finean, denen aurka egiten baita, eta aitzitik: baten alde egiten dena guztien alde doa. Egiazko nazioartekotasuna elkarren arteko errespetu eta orekan datza eta horren erdiestea aurrerakoi, bakezale eta bizitzaren aldeko den gizaki ororen eginkizuna da.

Huni atxikirik gainerako giza auziak doazi eta elkar onartze eta oreka, berriz ere, denetan agertzen da: herri eta gizarte mota guztien arteko egoerak eta emankortasunak egiazki ahalbidetuz, gizon eta emakumeen artekoak propioki parekatuz, beste bizikidelako artue-manak eta egoerak obekituz, eta abar.

Azken batean auzia bizitzaren alde ala aurka egotean datza. Izkuntza/iztun talde baten alde egiazki dagoena nekez dagoke besteren aurka (haren menperatzaile ez den bitartean, naski); gizakien alde dagoena zail legoke gizon edo-ta emakumeen besterenatzearen alde. Bizitza denok lotzen gaituen kate luze bat da, gizakiak, alimaliak eta zuhaitzak barne.

Euskara mundu mailako egoera justuago eta orekatuago baten ikurra artzearekin - bere bizi-nahia hori baizik ez da - aurrerabidean ematen da; bere buruari -iztunei- indarberritutako zentzua ematen dio, gisa berean beste izkuntz/iztun taldeei eta gainerako arazoei. Eta hunela, errotik trebaturik mundu orekatuago baten erdiesteko eman behar diren urratsetan, mundu hori, biharkoa, posibleago da bilakatzen; hein batean



*“Izadia Jakintzarantz doalarik eta Jakintza Izadirantz doalarik, hizkuntz orekaren eskema osotzen dute”*

gaurkotzen da, bihar hori beti tokian toki eta egun oro egiten baita”.

Etsaiak aunitz eta ahaldunak dira, aurkako jarrera eta oldarrak indartsuak oso, baina bizi-nahia egiazki tinko eta fermua baldin bada, borondatea zinezkoa baldin bada, daitekeen hori obratzen eta gauzatzen joan ohi da. Erantzuna, beraz, gure esku dago; galdera, berriz, aidean gelditzen: gauza ote gara Euskalerrriak aske eta osorik euskaldun izateko sortzen dituen taupada eta indarrak jabetasun eta zentzuz mamitzeko, elkarbidean propioki abiarazteko?

Geroak esanen.